

LINO AKESOLO, AGUR

KARMEL aldizkari honek zuen izarik behinena ezkutatu zaigu: Euskal Kultura eta euskararen hizkuntz munduko izar diztirtsua. Aita Lino Akesolo joan zaigu.

KARMEL eta ni neu, pertsonalki, berarekin lankidetzan aritu eta elkarrekin asmo ederrak gogoetan sortu izan ditugunok, saminaren saminak etenda eta sortuta geratu gara: Aurreko larunbatean (Irailaren 14ean) arratsalde idazmakinara eramaten lagundu nion, berak ahoz esanik, Rafael Kalinowski santuari buruz egin duen beraren azken idazlana; eta asteartean, 17an, goizez, bizitza osoan hain goiztiarra izan dena, hainbeste egunsenti argitzen ikusi ondoren, fir-fir eginez joan zaigu...

KARMEL Aldizkaria azken probak zuzenduta kalera irtetzeko gertu zegoela, ustekabean eta presaka, hera hii eta ordu batzu barru idatzitako lerro hauen bidez, beraren heriotzeak guregan sortu dituen sentimenduak azaldu nahi dizkizuegu zuoi, urteetan zehar beraren irakurle leial izan zaretenoi.

Ezin da hitzetan adierazi izan dugun galera: KARMEL aldizkari honen bizkarrezurra zen; askatasun osoa zainduz zientzia eta egiaren aurrean baino munik edo makurrik egiten ez zuen gizona.

L. Akesolo, euskalari legez euskalki guztien jakitun, euskal literatura zabal eta osoaren ezagule, kritikari sakon eta munduko

kultura orokorraren jabe genuen. Lan oparoa utzi digu: beraren zuzendaritzapean eta bere urteetako lan isilaren fruitu ederra dela, 9 liburukitan argitara emaniko *Euskararen Lekuko en Hiztegia*; beraren lanen bilduma (1.600 orr.) bi liburukitan argitaratua eta laster, beraren azken hiru urtetako lanak bilduz kaleratuko den hirugarren liburukia. Eta honi eta hari eskainitako beste hainbat eta hainbat isileko lan; hala, esaterako, urteetan zehar Liturgia testuak euskaratzen egindakoa.

Beraren bizitzako ezaugarriak nagusienak isiltasuna eta lana izan dira, apaftasunez eta leuntasunez zerbitzu ugari eskaini duela. Nork neurtu, baina, berak emaniko laguntzak, dohainik eta beti eskuzabaltasunez eskainitako orduak? Beti zuen eskua zabalik edonori laguntzeko. Beti genuen gertu argibiderik emateko. Ez dakigu, gaur egun, halako gizon jakintsu eta apal, isil eta langile, kristau Jainkozale eta erlijioso zintzo eta euskaltzale ugari geratzen zaigun gure artean!

Azken urteotan bere burua gorputzez makalago ikusten zuen arren, burua argi eta lanerako gogoak gar zituen. Hain zuzen ere, gorputz ahuldu horretako gartzelan errepika zitezkeen berak gazte zela, gerra zibilaren ondoren, Carmona-ko gartzelan 1939-1940. urtean idatzi zituen bertso hauek:

Herri gaixoa,
gaur ene gogoa,
espetxeko ordu baltzetan,
maitezko egoetan
zuanaiño egadan noa.

Zu zaitut, aberri,
neure zorigaitzaren azkarri;
zeu, aberri!

Bai, Aberrira! Amaigabeko zorionera joan zaigu, gu triste utzirik,...

J. Urkiza